



HERRITARREN PARTAIDETZA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA OSATZEKO PROZESUA



Aretxabaletako
Udala

AURKIBIDEA

0.	SARRERA -----	2
1.	PROZESUAREN HELBURUAK -----	3
2.	PROZESUAREN METODOLOGIA ETA URRATSAK -----	4
2.1.	1.LAN FASEA: PROZESUAREN AURKEZPENAK ETA PARTE HARTZEAREN INGURUKO GOGOETAK-----	5
2.2.	2.LAN FASEA: ARAUDIAREN EDUKIEN INGURUKO EKARPENAK ETA PROPOSAMENAK JASOTZEA -----	6
2.3.	3.LAN FASEA: ARAUDIAREN EDUKIEN INGURUKO ADOSTASUNAK BILATU-----	7
3.	PORTE HARTZEAREN EGOERA ARETXABALETAN -----	8
4.	ORDENANTZAREN JOKO ZELAIA -----	11
5.	ORDENANTZAREN BEHARRAK-----	13
6.	ORDENANTZAREN ATALAK -----	15
7.	PROPOSAMENAK -----	16
8.	ZEHAZTUTAKO PROPOSAMENA -----	24
9.	PROZESUAK UTZIKTAKO ONDORIO BATZUK-----	25
10.	PROZESUAREN BALORAZIOA -----	26

0. SARRERA

Txosten honetan Aretxabaletan "Herritarren partaidetza arautzeko ordenantza osatzeko partaidetza prozesua"ren eduki eta ondorioak jasotzen dira. Aretxabaletako Udalarekin batera Aztiker Soziologia Ikerguneak aurrera eramandako prozesuaren nondik norakoak biltzen dira bertan.

Txosten honek, 2016ko ekainean eta 2017ko otsaila bitarte garatu den prozesuaren xehetasun guztiak biltzen ditu: prozesuaren abiapuntua, landutako eduki nagusiak eta jasotako ondorio eta balorazioak.

Herritarrak abiapuntu eta subjektu gisa ulertzeko borondatea izan du prozesu honek hasieratik, Aretxabaletako parte hartze dinamiken sortzaile eta protagonista izan diren heinean. Prozesu mota honen planteamendua erraza izan da zentzu horretan: herritarren partaidetzaren inguruan hitz egin eta erabakitzeko protagonistak herritarrak beraiek izan behar dute. Ezagupen hauek oinarri hartuta, herritarrak eurek izan dira proposamenak egin, landu eta lehenetsi dituztenak.

Era beran, prozesu honetan proposatutako neurri batzuk udal erabakiak dira eta udal egiturari dagokio hauek egikaritzea. Zentzu horretan ordezkari politikoak ere aktibo garrantzitsua izan dira prozesu honetan. Aurrerantzean ere, neurria hauek egikaritzea prozesu konpartitua izango da, herritar eta udal ordezkarien artean garatu beharrekoa.

Txostenaren egiturak prozesuaren kronologia jarraitzen du. Prozesuaren helburu eta metodologia aurkezten dira hasieran; parte hartzearen egoeraren inguruko argazkia jasotzen du, ordenantza beraren joko zelaia eta berau sortzeko beharrekin batera; jarraian, ordenantzaren beraren atal eta eduki nagusiak aurkezten dira; bukatzeko prozesuaren ondorio eta balorazio batzuk jasotzen dira.

Eranskin gisa, prozesu honen ondorio nagusi moduan sortutako ordenantzaren zirriborroa aurkezten da.

Partaidetzazko prozesuan sortutako edukia oso baliagarria da, ikuspegi eta bizipen anitzen baita osaturik baitago. Aretxabaletako askotariko elkarte zein norbanakoen bueltan dauden pertsonak dira lan honen benetako balioa, eta horren errekonozimendu osoa merezi dute. Aurkeztu den proposamen bakoitzak eragina izan du prozesuak izan duen ibilbidean, eta prozesuan hartutako azken erabakian. Beraz, **guztiori, eta banan bana, zorionak eman nahi dizkizuegu egindako lanagatik, zuotako bakoitza gabe lana ez baitzen berdina izango.**

1. PROZESUAREN HELBURUAK



Partaidetzazko prozesu honek ondorengo helburu nagusi hauei erantzun nahi izan die:

➤ HELBURU OROKORRA:

- ✓ ARETXABALETako herritarren parte hartzearen inguruko gogoeta burutu
- ✓ ARETXABALETako herritarrek parte hartzea sustatzeko moduen inguruko gogoeta burutu
- ✓ ARETXABALETako behar komunitarioak asetzeko modu eta bideen inguruko gogoeta burutu eta hau norabidetzeko markoa proposatu

➤ HELBURU ZEHATZAK:

- ✓ ARETXABALETako parte hartze egitura zehaztu
- ✓ ARETXABALETAn udala mailan herritarren partaidetza arautzeko marko teoriko-praktikoa (ordenantza) herritarren artean adostea

➤ ZEHARKAKO HELBURUAK:


Zeharkako helburuei dagokionez, ondoren zerrendatzen direnak izan dira prozesuan zehar landutakoak:

- ✓ Udala eta herritarren artean **elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea**.
- ✓ Parte hartze kultura iraunkorra sustatzea, epe luzeko ibilbidea izango duena.
- ✓ Udala eta herritarren arteko **elkarlanerako sistemak sortzea**.
- ✓ Talde lanerako espazioak sortuz, **erakunde bakoitzaren interesen ikuspegi zehatzetik**, eta auziaren inguruko ikuspegi desberdinak mahai gaineratuz, **talde/komunitate ikuspegia lantzea**.
- ✓ **Kultura politikoaren eraldaketa sustatzea**, orain arteko demokrazia kontzeptua zabaltzea, eta herritarren parte hartzea instituzioetan bultzatzea, horrek dakarren demokraziaren kontzeptuaren zabaltze ariketarekin, ikuspegi desberdinen baturaz ikuspegi osoagoa bilatuz.
- ✓ Partaide bakoitzaren eta denen **berdintasuna eta garrantzia indartzea**: edozein dela herrian duen rola, funtzioa, ardura; edozein dela duen generoa; edozein dela ordezkatzeko duen subjektua, e.a.

2. PROZESUAREN METODOLOGIA ETA URRATSAK

Prozesu honetan zehar herritarren partaidetza bilatzeko metodologia desberdinak garatu ditugu, batez ere saio irekiak eta zuzeneko elkarrizketak tartekatuz.

Era berean, prozesuaren gidaritzaren ardura izan duen Talde Eragilea izan da prozesuaren motore eta erdigune. Hau izan da prozesua garatzeko erabilitako LAN ESKEMA nagusia:



2.1. 1.LAN FASEA: PROZESUAREN AURKEZPENAK ETA PARTE HARTZEAREN INGURUKO GOGOETAK

Udal arduradunak eta teknikariak barne hartu ditu lan fase honek. Herritarrak ere egitasmoaren parte izan dira talde eragilearen osaeran. Bi eginkizun zehatzak eta bereziak izan dira:

Honako urratsen bidez garatu da lan fase hau:

1. **URRATSA:** ORDEZKARI POLITIKOEI AURKEZPENA

Ordezkarri politikoen bi saio burutu ziren:

- **Uztailaren 4a.** Ordenantzaren beharrak konpartitu ziren ordezkari politikoekin.
- **Irailaren 27a.** Ordenantzaren mugak eta baldintzak zehaztu ziren ordezkariekin.

2. **URRATSA:** TEKNIKARI ETA UDAL LANGILEEI AURKEZPENA

Udal langileekin saio bat burutu da

- **Uztailaren 11n** garatu zen lan saio hau, udal funtzionamenduan ordenantza honek dituen beharren inguruan.

3. **URRATSA:** TALDE ERAGILEAREN 1.BILERA

Talde eragilearen lehenengo bileraren helburua prozesuaren komunikazioa lanak eta prozesuaren markoa zehaztea izan zen.

Urriaren 10ean burutu zen bilera honetan, era berean, prozesuaren komunikazio plana eta komunikazio moduak zehaztu ziren.

4. **URRATSA:** LEHENENGO LAN SAIO IREKIA

Lan saio ireki hau honako egituraren arabera garatu zen:

- a. Parte hartzearen balioak eta ezaugarriak
- b. Aretxabaletako parte hartzearen argazkia
- c. Parte hartze ordenantza ereduaren aurkezpena
- d. Parte hartze ordenantzak arautu beharreko eremu eta elementuak identifikatu

Lan saio ireki hau urriaren 25ean egin zen Komentuan.

2.2. 2.LAN FASEA: ARAUDIAREN EDUKIEN INGURUKO EKARPENAK ETA PROPOSAMENAK JASOTZEA

1. **URRATSA:** ERAGILEEKIN LAN BILERAK

- a. Talde eragileak zehaztutako herriko eragile eta elkarteekin ordenantzaren edukiaren inguruko ekarpenak eta proposamenak jasotzeko lan bilerak egingo dira.
- b. Lan bilera hauek honako eragileekin burutu zen: UDA, Loramendi, Basotxo, Aretxarte, Gurabarri, Arizmendi, abesbatza eta gaztelerazko talde bat sortu zen propio.

2. **URRATSA:** PARTAIDE ETA ERAGILEEKIN EMAIL BIDEZKO GALDETEGIAK

Partaide guztiei email bidezko komunikazioaren bitartez ordenantzaren eremu desberdinetan ekarpenak egiteko aukera eskainiko zaie.

Era berean, udaletxean, Basotxon eta Arkupen buzoiak eta galdetegiak jarri ziren herritarrek ekarpenak egiteko.

3. **URRATSA: ORDEZKARI POLITIKOekin 3. LAN BILERA**

Udal ordezkari politikoekin lan bilera egin da, zirriborroaren eduki nagusiak aurkeztu eta kontrastatzeko. Era beran, lan bilera hau ordenantzari ikusten zaizkion balizko mugak zehazteko erabili da.

4. **URRATSA: TALDE ERAGILEAREN 2. LAN BILERA**

Talde eragilearen 2.bilera sortutako edukia bateratu eta 2.lan saio irekirako edukiak prestatzeko egin zen.

2.3. 3.LAN FASEA: ARAUDIAREN EDUKIEN INGURUKO ADOSTASUNAK BILATZEKO SAIAKERA

1. **URRATSA:** BIGARREN SAIO IREKIA

Lan saio honetan ordenantzak arautuko dituen eremu desberdinetako proposamenak aurkeztu eta osatzeko antolatu zen.

2. **URRATSA:** ONLINE PLATAFORMA BIDEZKO EKARPENAK EGITEKO AUKERA

Ordura arte zehaztutako eremuekin ordenantzaren zirriborroa online plataforman eskegi da, eta bi astez herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dute.

3. **URRATSA:** UDAL IDAZKARIAREKIN BILERA

Udal idazkariaren ekarpenak jasotzeko lan bilera burutu dugu, ordenantzaren ikuspegi juridikoa bermatu asmoz.

4. **URRATSA:** TALDE ERAGILEAREN 3. LAN BILERA

Talde Eragilearen azken bilera hau prozesuaren balorazio orokorra egiteko burutu da; alde batetik, ordenantzaren edukian zehaztu beharreko elementuak argitu edota zehazteko; eta, bestetik, prozesuaren balorazio orokorra burutzeko.

3. PARTE HARTZEAREN EGOERA ARETXABALETAN

Prozesuaren hastapeneko urrats gisa, Aretxabaletan ematen den parte hartzearen inguruko gogoeta orokorra burutu da.

Gogoeta honen helburua parte hartzearen inguruko argazki eta abiapuntu komun bat marraztea izan da.

Jarraian aurkezten den edukia modu desberdinetan jaso da:

- Ordezkarri politiko eta udal langileekin egindako lan saioetan
- Herritarrekin egindako 1.saio irekian
- Elkarrizketa eta galdetegien bitartez ustiatutako edukia

Hona hemen, beraz, parte hartzearen inguruan jasotako iruzkinak:

a. NOLA PARTE HARTZEN DUGU ORAIN ARETXABALETAN?

- Udalean idatziz, web bitartez, kalean harrapatuta. Orokorrean parte hartze eskasa dago.
- Politikoei bozka emanda
- Plenoetara joanda
- Alkateari gutunak idatzita
- Normalean modu pertsonalean
- Ahal dudan moduan kolaboratuz
- Gehiengo norberekoa da eta soluzio pribatuetan pentsatzen du kolektibon baino gehiago
- Oso gutxi parte hartzen da
- Udaletxeko ordezkariak eroso sentitzen gara delegazioarekin
- Oso gutxi parte hartzen da, inportantea da sistema dinamikoa sortzea parte hartzea hobetzeko
- Erabakiak zuzenean eragiten digunean parte hartu ohi dugu, bestela albo batera begiratzen dugu
- Iradokizunen bitartez
- Ekintza zehatzak eginda Udaletxera tramite ofizialak egitera joanda
- Erabaki zuzenetan parte hartuta
- Informazio faltagatik ez da parte hartzen
- Udaletxeko ordezkariari zuzenean deituz
- Eskaera orriak betez

- Herri parte hartzailea orohar
- Gutxi batzuk dira parte hartzen dutenak modu iraunkorrean
- Pertsona euskaldunek hartzen dute parte batez ere
- Elkarrekin harremana badute udalarekin, herritarrek ez
- Herri mobidua da
- Kontzientzia orokorra da: "horretarako daude politikoak"
- Jendea asko kexatzen da baina gutxi egiten du
- Orohar eskasa, salbuespen batzuk kenduta
- Interesa galdu da, bakoitza bere bizitza indibidualean sartuta dagoelako

b. ZER HOBETU BEHARKO GENUKE?

- Herritarrak eragiten dion erabakietan parte sentitzeko bidea egiten hastea eta politikariek euren eremuaren zati bat uztea utopia lortu arte, demokrazia erreal eta partehartzailea duen mundua, alegia.
- Herritarrek ahotsa izan dezaten politikariek hartzen duten edozein erabakiren inguruan
- Tresna eraginkorra sortu: herritarrak eta udala lortzeko.
- Dauden failuak zuzendu
- Gauzak behar bezala askatzeko aukera eskaintzea
- Partaidetza hobetzeko sistema eta dinamika
- Udaletxean lantzen diren gai desberdinen ezagutza. Zer eta nola egiten dira gauzak udaletxean?
- Jendea erabakien parte sentitzea.
- Udaletxearen ateak zabaltzea.
- Jendearen gogoak parte hartzeko piztea.
- Iritzia emateko gauza mordoa
- Ideien arteko oreka bilatzea
- Informazioa
- Parte hartzea arautzea, orain ez bezala
- Besteengandik ikasi eta nire aportazioak egitea udalerriko bizimodua hobetzeko
- Herritarra parte hartzea, eta informazio eskubidea bermatuko duen tresna

c. ZER LORTU NAHI DUGU ORDENANTZA BATEN BITARTEZ?

- Iritzia emateko erraztasuna jarri, harresiak sortu gabe
- Komunikazio erraztu, bi bideetan.
- Udaletxean lantzen diren gai desberdinetan parte hartzeko protokoloak jarri
- Parte hartzeko sistema hau jende guztiari hel diezaiola
- Aretxabaletako elkarbizitza hobetuz
- Udaletxe eta herritarren arteko kanalak hobetuta
- Informazio gune bezalako bat egotea
- Herritarrak udal gaietan ordezkatuta sentituta

- Udaletxea demokratizatu behar da egunerokotasunean
- Herritarrak ahaldundu parte hartu ahal izateko
- Parte hartzeko mekanismoak araututa
- Noiz eta zein kasuetan norengana jo behar dugun argituta
- Herritarrek bozka bidez arlo gehiagotan erabakitzeke aukera izatea.
- Herritarren informazioa
- Udaletxea eta herritarren arteko komunikazio bideak hobetuta
- Komunikazioa ez dadila hitzetan geratu, eta bete dadila.
- Aukera gehiago eskaini behar dira
- Iritzia gehiago eskatu behar zaie herritarrei

d. ZEINTZUK IZAN BEHARKO LUKETE PARTE HARTZEA SUSTATZEKO MODUAK?

- Burokrazia arindu
- Harremana zuzenagoa izatea herritarrekin
- Informazio guztia eskuragarri egotea. Aldizkaritxo bat sortzea
- Behar bat da, baina bideratu behar da pixkat
- Udalaren arreta beste pertsona baten bidez eta beste espazio baten egitea (Arkupe)
- Herritarrak motibatzea, jendearen erabakia inportantea dela esan eta motibatu
- Egitura eta bitartekoak areagotu behar dira
- Deialdi zehatzak burutu, irekiek ez dute funtzionatzen
- Benetako gauzetan erabaki ahal izatea
- Parte hartze foroak sortu
- Guneak eskaini
- Herritarrengana iristeko beste bide batzuk bilatu

4. ORDENANTZAREN JOKO ZELAIA

Prozesu herritarra izan den heinean, prozesua sozializatu aurretik politikarien artean adostasunak bilatzea izan da prozesuaren abiapuntua.

Ordenantza honen erabilgarritasuna zehazteko ordezkari politikoei prozesuaren mugak zehaztea eskatu zaie; herritarrek jakin dezaten hasieratik zein den prozesu honen markoa.

Zehatzago adierazita, herritarrek sortutako badute ordenantza alde aurretik ezagutu behar dute zeren inguruan erabaki dezakete eta zeren inguruan ez.

Norabide hau mantentzea garrantzitsua izan da: lehendabizi muga politikoak marraztu eta horren arabera ordenantzaren beraren edukia osatu.

Honetarako, udaleko ordezkari politikoen arteko bi LAN SAIO burutu ziren.

Prozesu honen baldintzak honakoak izango zirela erabaki zen, atalez atal:

❖ **PARTE HARTZE PROZESUAK**

Bozkaketa bat proposatzen den prozesuen kasuetan parte hartze minimo bat jartzearen alde agertu ziren.

Bi prozesu mota aurreikusten dira:

- Prozesu kontsultiboak. Prozesu mota hauetan herritarren iritziak eta proposamenak eskatuko dira, baina erabakia ez egongo marko horren ardurapean.
- Prozesu erabakitzaileak. Helburua erabakia prozesu horretan parte hartzen duten herritarren esku egongo da.

❖ **AURREKONTUAK**

Herritarrei, behintzat, aurrekontuen inguruko informazioa eskaini, iritziak jaso eta erantzuna bideratuko zaiela erabaki zen.

Aukera gisa aurrekontuaren zati bat (inbertsioen portzentai bat) urtero herritarrek erabakiko dutela kontenplazten zuten.

❖ **UDAL PLENOAK**

- Udal plenoak publiko eta irekiak izaten jarraitzea adosten da.
- Herritarrek plenoetan parte hartu eta interbentzioak bideratzeko aukera eskaintzea eta zabaltzea hobesten dute partaideek.
- Plenoak grabatu eta webgunean eskegitzeko aukera adierazten da.

❖ **UDAL BATZORDEAK**

- Udal batzordeetan bi parte hartze mota egotea aurreikusten da:
 - Alde batetik, foro iraunkorretan parte hartze iraunkorra izateko bermeak ezartzea
 - Bestetik, gonbidatuen figura sortzea, aldizkako parte hartzea izango duten pertsonak hain zuzen.
- Bestalde, elkarteen erregistroa baliatuko litzateke batzorde hauetan parte hartzeko.

❖ **FORO IREKIAK**

- Aukera gisa udal gai desberdinen inguruko foro irekiak sortzea kontenplazten da.

❖ **PARTE HARTZE TALDEA**

- Talde honek herritarren parte hartzearen planifikazio ardura izango luke, herrian martxan jarri daitezken udal dinamika parte hartzaile desberdinak antolatzeko ardura bere gain hartuz.
- Talde honen osakerari dagokionez aukera hauek adierazten dira: langileen ordezkari bat, ordezkari politikoak, elkarteetako ordezkariak eta herritarrek osatzea.

5. ORDENANTZAREN BEHARRAK

Atal honetan herritarren partaidetza ordenantza sustatzeko arrazoiak eta beharrak aurkezten dira. Hemen jasotzen den atala honela lortua izan da:

- Ordezkarri politikoekin bilera
- Udal langile eta teknikariek bilera
- Lehenengo saio irekia
- Egindako elkarrizketak

Hona hemen, beraz, herritarren izendatutako beharrak:

- Iritzia emateko erraztasuna jarri, harresiak sortu gabe
- Komunikazio erraztu, bi bideetan.
- Udaletxean lantzen diren gai desberdinetan parte hartzeko protokoloak jarri
- Parte hartzeko sistema hau jende guztiari hel diezaiola
- Aretxabaletako elkarbizitza hobetuz
- Udaletxe eta herritarren arteko kanalak hobetuta
- Informazio gune bezalako bat egotea
- Herritarrak udal gaietan ordezkatuta sentituta
- Udaletxea demokratizatu behar da egunerokotasunean
- Herritarrak ahaldundu parte hartu ahal izateko
- Parte hartzeko mekanismoak araututa
- Noiz eta zein kasuetan norengana jo behar dugun argituta
- Herritarrek bozka bidez arlo gehiagotan erabakitze aukera izatea.
- Herritarren informazioa
- Udaletxea eta herritarren arteko komunikazio bideak hobetuta
- Komunikazioa ez dadila hitzetan geratu, eta bete dadila.
- Aukera gehiago eskaini behar dira
- Iritzia gehiago eskatu behar zaie herritarrei
- Erabakitze prozesu baten ostean lantzen dela
- Erabakiari zilegitasuna ematen diola
- Herritarren inplikazioa
- Lankidetzak herritarrekin
- Herritarrak kontutan hartzen direla
- Jendearen benetako pentsamendua jakitea
- Informazioa emateko beste modu bat
- Herritarren jarrera eta iritziak jakitea

- Langileen arteko harremanak hobetu
- Udal departamentuen arteko komunikazioa areagotu
- Beharrezkoa da
- Elkarteen kasuan, argitzeko parte hartzerakoan zeinengana jo behar den. Ibilbideak zehazteko.
- Herritarrengana iristeko parte hartzeko tresnen inguruko informazioa, nola funtzionatzen duten... gaur egun ez baita iristen.
- Kultura politiko desberdin bat sortzeko. Sistema permeabilizatu behar da. Horretarako, herritarrak ahaldundu egin behar dira, gauzak egiteko gai garela landu (emakumeen inguruan azken urteetan egin den lanketa adibide).
- Parte hartzeko sistema sortzeko, epe luzera oinarri bat dagoela jakinda
- Herritarrek hitza entzungo dela bermatzeko
- Iritzi desberdinen arteko batasuna egoteko
- Herritarrek erabakiei balioa emateko
- Herriko arazo eta gatazkak konpontzeko bide bat izatea

6. ORDENANTZAREN ATALAK

Lehenengo saio irekian eta talde eragilean jasotako ekarpenen ostean, parte hartze ordenantzak honako antolaketa izango duela erabaki zuten partaideek.

Jarraian, ordenantzak izan dituen atalak aurkezten dira:

- ❖ [Herritartasunaren definizioa \(generikoa\)](#)
- ❖ [Herritarren eskubideak](#)
- ❖ [Elkarteen erregistroa](#)
- ❖ [Gardentasuna eta informazio publikoa](#)
- ❖ [Webgunearen edukia eta erabilera](#)
- ❖ [Arreta zerbitzua](#)
- ❖ [Parte hartzeko mekanismoak](#)
- ❖ [Udal egitura](#)

7. PROPOSAMENAK

Atal honetan ordenantzak arautuko duen gai bakoitzaren inguruko gogoetak eta edukiak jasotzen dira.

Alde batetik, elkarrizketen ustiaketari esker gaiaren inguruko inpresio orokorrak jasotzen dira. Jarraian, gai horren inguruan adostasuna eragiten duten adostasun eta desadostasunak biltzen dira.

Azkenik, bigarren saio irekian jasotako iritziak eta proposamen berriak aurkezten dira.

1. ARRETA ZERBITZUA:

IKUSPEGI OROKORRA:

- ✓ Bi bizipen eta balorazio desberdinak agertzen dira:
 - Egokia, zuzena eta azkarra. Erantzunak egoki eta garaiz ematen dira.
 - Sentsazioa da harremana astuna, motela eta partziala dela.
- ✓ Elkarre moduan orokorrean harremana zuzena eta eraginkorra izaten da, zalantza gehiago sortzen dira herritar bezala harremantzen direnean.

ADOSTASUNAK

- **Eskaerak erantzuteko epe bat zehaztea (10 egun adibidez)**
- Burokrazia arindu
- Udala sustatzaile izatea
- Udala oso partzelatua dago, ikuspegi bateratua falta da.

DESADOSTASUNAK

- Ekipo multidisziplinarrak sortzea
- **Arreta zerbitzua bateratzea (pertsona bat horretara bideratzea, Arkupen adibidez)**
- Herriko bisita gidatuak sustatzea, Aretxabaletako ondarea balioan jarritz

Gaiaren inguruko partaideek egindako hainbat iritzi:

- Tramitazio arloa ondo baina beste zerbitzu batzuk faltan botatzen dira.
- Bi arreta zerbitzu daude udaletxean egun eta jendeak ez daki oso garbi nora joan behar duen.

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Eskaera bat egindakoan 10 eguneko epean erantzun bat edo lehenengo kontaktu bat egon beharko litzateke.
- Falta den ordutegia osatu eta arreta gunea hobetu, fisikoki.
- Eskoriatzako webguneak harpidetza egitekoa aukera dauka eta horrek mugimendu handia ematen dio webguneari..
- Arretarako espazio egokitu behar da eta eskuragarriago izan.
- Astean zehar egun batzuetan arratsaldeko ordutegian ere zabaltzea probatu behar da.

2. PARTE HARTZE PROZESUAK:

ADOSTASUNAK

- Prozesuak baliagarriak direla ikusi behar du herritarrak
- Gaiak ondo erabaki behar dira, interesa pizten dutenak.

DESADOSTASUNAK

- Parte hartzaile kopuruak (quorumak) zehaztu behar dira
- Ez da denaren gainean erabaki behar
- Elkarte handien eragin maila errespetatu behar da
- Izaera kontsultiboa izan behar dute, udalak galdetu behar du eta erabakia udalarena izatea
- Prozesuak izaera erabakitzailea izan behar dute
- Gai estrategikoetan erabakitzaileak izatea, besteetan kontsultiboa

Gaiaren inguruko partaideek emandako hainbat iritzi:

- Ez badago minimo bat ez da legitimoa prozesua.

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Gaiak ondo akotatzen badira erabakitzailea izan daiteke, minimo batzuekin.
- Gauza txikiekin hasi beharko litzateke eta parte hartze hezitzailea bultzatu.
- Kontua espektro guztietara heltzeko gai izatea da, jende mota denetara.
- Deialdia guztiz zabaldu beharrean gaika zatitu daiteke. Bestela, herritar guztiei zuzendutako deialdi bat antolatzea zaila da.
- Erroldatik ausazko aukeraketa.
- Parte hartze prozesuak izaera loteslea badu hasieratik adierazi behar da.
- Interes taldeen (gazteak, haurrak...) arabera terminologia eta metodologia erabili.
- Gaiaren arabera erabaki beharko litzateke prozesuen izaera (kontsultiboa edo erabakitzailea izan behar duen).
- Erabakitzaileak izateko baldintza eta berme batzuk jarri behar dira (adibidez aurrekontuaren inbertsioaren kopuru bat gainditzeko).
- Kasu guztietan gaiarekiko ezagutza bermatu behar da.

3. HERRI GALDEKETA

ADOSTASUNAK

- Gai estrategikoak eta "serioak" diren kasuetan
- Informazioa ondo bideratu eta heltzen dela bermatzeko neurriak hartu
- Galdeketa zein kasuetan ez den posible argitzea
- Eskubideen kontrako galdeketarik ez egitea
- Gaiekin selektiboa izan beharko luke udala

DESADOSTASUNAK

- Pertsona adituak baldin badaude eta irizpide garbiak horrela erabaki behar da; dena ezin da herritarren eskuan utzi.
- Izaera (loteslea) argi adieraztea hasieratik

Gaiaren inguruko partaideek egindako hainbat iritzi:

- Oreka bilatu behar da. Adituek erabaki behar badute, orduan parte hartze prozesuak zertarako dira?
- Adituak iritzi ezberdinetakoak egon daitezke (bi aldetakoak):

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Adituek alde guztietako iritziak baloratu beharko lituzkete eta gero instituzioek erabaki.
- Zein kasutan ezin den galdetu konkretatzea ere komeni da.
- Politikoen erantzukizuna da zein kasutan ezin den galdetu erabakitzea.

4. UDAL BATZORDEAK:

ADOSTASUNAK

- Osotasunean parte hartu behar da (aurrekontuaren inguruan erabakitzea barne)
- **Herria gerturatzeko formulak bilatu** behar dira
- Ondo dago arautzea baina ez dadila oso murriztailea izan
- Irekiak izan behar dute (deialdia ondo eginda)

DESADOSTASUNAK

- Taldeek parte hartze ondo dago baina talde txikiak izan behar dute, funtzionalak izatea nahi badugu
- **Irekiak izan behar dute**
- **Bi figura osatzea: partaide iraunkorrak eta gonbidatuak**
- Arloko teknikaria, arloko zinegotziak, elkarteetako arduradunak
- Herritarren kasuan elkarteetan daudenak eta ez daudenak bereiztu behar dira
- Herria dinamizatzeko
- Planifikazioa eta proiektu posibleak antolatzeke
- **Eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko**
- **Aurrekontua kudeatzeko**

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Batzordeen birformulazioa egin beharko litzateke jendea batzordeetara joan ahal izateko.
- Zuriketak ere egin behar izaten dira eta horrelako gaiak bereiztu egin beharko lirateke.
- Gaiaren arabera bereiztu. Batzordeek ez daukate zertan beti berdinak izan eta ezta parte hartzaile berdinekin ere. Gauza praktikoak direnean deitu behar zaie herritarrei. Azkenengo urteetan parte hartzea jaitsi egin da.
- Batzordeak kontsultarako dira.
- Emandako iritziak onartzen ez direnean txarto hartzen da.
- Iraunkorrak ekarpenak egiteko direnean eta ez norbere intereserako.
- Elkarteetan kasuetan iraunkorra izatea proposatzen da.
- Elkarteetan ez dagoen herritarrarentzat irekia izango da, gaiaren arabera gonbidatuz herritarrak.
- Batzordeen gaiordena publiko egin beharko da.

5. UDAL AURREKONTUAK:

ADOSTASUNAK

- Norabide gradual bat izan behar du
- Informazio argia izan behar du edozein kasutan

DESADOSTASUNAK

- Erabaki estrategikoak galdetu behar dira
- Batzordeetatik jaio behar da, batzordeek aurrekontua erabakitzea
- Inbertsioetan ere parte hartzeko aukera izatea
- Diru partida bat zehaztu eta herritarrek erabaki zeintzuk diren lehentasunak

Gaiaren inguruko partaideek egindako hainbat iritzi:

- Jendeak informazio falta dauka. Jendeak ez daki kiroldedia baino askoz defizitarioagoa dela Kultur Etxea.
- Hauteskunde programa parte hartzearekin nola uztartzen da? Galdera honen harira eztabaida piztu da taldean.

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Gaiaren lehentasuna markatzea garrantzitsua da.
- Erabaki batzuk derrigorrezkoak dira. Beste batzuk aukera ezberdinak ematen dituzte.
- Diru kopuru bat (% X) herritarrei eman zer egin daitekeen erabakitzeko, herriko lehentasunak erabakitzeko.

6. HERRITARTASUNA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK

ADOSTASUNAK

- 16 urtetik beherakoak aintzat hartu
- Haurrak aintzat hartu
- Aretxabaletan bizi diren herritar guztiak
- Haurrak, nagusiak eta emakumeak sektore klabeak dira
- Entzunak izatea
- Kontsultatuak izateko eskubidea
- Informazioa jasotzeko eskubidea
- Ekarpenak egiteko eskubidea

Gaiaren inguruko partaideek egindako hainbat iritzi:

- Erroldatua edo biztanlea izatea gauza berdina da? Eztabaida sortu da taldean galdera honen inguruan.

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Gauza batzuetarako (galdeketak kasu) erregistro ziur bat egon behar du.
- Kasu batzuetan Aretxabaletan bizi diren pertsonen bozka eskubidea dutela zehaztu behar da.

7. GARDENTASUNA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA

IKUSPEGI OROKORRA:

- ✓ Kasu honetan bi iritzi polarizatu agertzen dira, orokorrean balorazio egokia egiten bada ere. Honela:
 - Batzuk diote informazioa eskuragarri dagoela modu erraz batean
 - Besteek, udalaren informaziorik ez duela jasotzen eta deskonexioa dagoela udala eta herritarren artean
- ✓ Orohar pertsona erdaldunek aukera gutxiago dutela adierazten dute
 - ✓ Udalak herritarrei urtean behin kontu ematea
 - ✓ Erreferentziazko guneetan "wifi" batzuk udaaren informazioarekin
 - ✓ Tabloiak
 - ✓ Webgunea
- ✓ Komunikabideak gehiago erabiltzea

ADOSTASUNAK

- ✓ Hartzen diren erabakiak
 - Dirulaguntzen banaketa
 - Aurrekontuen inguruko informazioa
 - Jaietako gastuak
 - Udalak dituen baliabideak ezagutzea: proiektoreak, mikorak, karpak...
 - Udaleko lan taldeak
 - Deialdiak
 - Udal zerbitzuak
 - Udaletako batzorde eta plenoetako aktak
 - Soldatak
 - Gauzak non, zer eta nola eskatu ahal diren informatu
- ✓ Hizkuntza ulergarria erabiltzea, aurrekontuak argiak izatea

DESADOSTASUNAK

- Udalaren aldizkari bat
- Hileroko egunkari bat
- Informazioa (mugatua) mugikorretara heltzea

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Plenoaren eguna eta ordutegia publiko egin behar da eta kalean egon behar du.
- Ez da oso praktikoa ikusten udal informaziodun wifi-a sortzea.
- Mugikorretara informazioa bidaltzeko herritarrek baimena eman beharko du eta informazio garrantzitsua baino ez da helaraziko.
- Udal informazioa helarazteko herritar bakoitzak izango du nahiago duen formatua aukeratzea. Informazio hau laburra izan behar du eta seihilabetean edo hiruhilabetean behin bidali.
- Plenoetako deialdia astebete lehenago komunikatuko da, eta behin burututa akta bidaliko da ere. Honela bideratuko da: sare sozialak, pantallak, udal webgunea, komunikabide lokaletan.
- Komunikazio guztiak bi hizkuntzatan egingo dira.
- Elkarrekin mozioak aurkezteko eskubidea izatea (alderdi politikoek aukera berdina izatea).

8. WEBGUNEA

IKUSPEGI OROKORRA:

- Pleno eta batzordeetako aktak eta irudiak
- Agenda bateratua eta albisteak
- **Aurrekontuaren jarraipenak (partidak zertan ari diren bideratzean)**
- Udal mailako ekintza guztiak
- **Elkarteen inguruko informazioa**
- **Albisteen buletina bidali**
- Udal eraikinen baliabideen erregistroa eta erabiltzeko prozedura
- **Eskaerak, galderak, kexak eta laudorioak bideratzeko txokoa**
- Elkarteek espazio bat izatea
- Proposamenen bozkaketa egiteko gunea (gaika antolatu)
- Inkestak egiteko aukera

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Herritar bakoitzak erabakiko du udal informazioa jasotzeko formatua (euskarri digitala edo paperean),
- Webgunearen bitartez inkestak eta galdeketak egiteko aukera bermatu behar da. Udalaz gain, gainontzeko eragileek inkestak proposatzeko aukera izatea; udalaren filtro bat egion behar du ere.

9. ELKARTEEN ERREGISTROA

ADOSTASUNAK

- ✓ Ideia interesgarria
- ✓ Elkarteen arteko koordinazioa eta sinergiak sortzeko
- ✓ Elkarteen agendak bateratzeko
- ✓ Erreferentziazko pertsonak izatea (udala eta elkarteetakoak)
- Legalki funtzionatzea. Paper eta betebeharrak guztiak eguneratua izatea

DESADOSTASUNAK

- Jarduera publikoa eta pribatua dituztenak desberdindu
- Jarduera erregistratu eta justifikatua izatea
- Gazteei exigentzia gutxiago eskatu (egokituak)
- EJko erregistroan izen emanda egotea
- Dirulaguntzak kontrolatzeko neurriak izateko

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Erregistroa garrantzitsua da errolda antzeko bat egiteko eta horretarako udal erregistroa sortzea egoki ikusten da.
- Diru-laguntzen berri ematea elkarteek ondo baloratzen da.
- Ez da beharrezko EJko elkarteen erregistroan izen emanda egotea.
- Elkarte gastronomikoak sartzea kontenplatu behar da.
- Elkarteetan ez dagoen herritarrengana heltzeko moduen inguruko eztabaida zabaltzen da.
- Plataforma herritar bat sortzearen aukera proposatzen da.

10. UDAL EGITURA:

ADOSTASUNAK

- **Ordenantzaren ikuskatze lanak**
- **Parte hartzearen planifikazio estrategikoa**

DESADOSTASUNAK

- **Herriko lehentasunak markatu**
- Egitura sinplifikatu, ireki eta anitza (herritarrak, ordezkari politikoak eta udal langileak)
- Elkarteetako herritarrak eta asoziatu gabeak

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Parte hartzea nola doan eta ordenantza betetzen den jarraitzeko taldea sortzea egokia da. Egitura horrek jarraipen lana behar du.
- Herritarrak eta elkarteak maila beran egon behar dira.
- Zalantzan jartzen da politikariek parte hartu behar duten.
- Eragile independente bat izan behar du; herriko lehentasunak betetzen ari diren eta ordenantzaren jarraipena egitearen funtzioak izan beharko ditu talde honek.
- Elkarteetan dauden eta ez dauden herritarrak ez dira bereiztu behar.

11. Udal osoko bilkurak:

ADOSTASUNAK

- Lehenik eta behin informatu behar da
- Herritarrak plenoetan nola parte hartu dezaketen ezagutzea
- Pedagogia egin behar da plenoetan parte hartzeko
- Herritarren ekarpenak egiteko tarte zabaltzea plenoetan
- **Elkarteek parte hartzeko erregistratu behar dute**
- Komunitate batek sinadura bilketa batekin parte hartzeko aukera izatea

DESADOSTASUNAK

- Berrikuntza egin daiteke (streaming, watsap bidez galderak bidali)
- Plenoak grabatu

Proposamen zehatzak honakoak dira:

- Plenoak grabatu eta zuzenean eskaintzeko aukera ondo baloratzen da.
- Herritarrek mozioak proposatzeko aukera izatea (alderdi politikoak bezala), eta hau bozkatua izan dadila.

8. ZEHAZTUTAKO PROPOSAMENA

Bigarren saio irekia burutu ostean osatu da Ordenantzaren zirriborroa.

Ekarpenak jasotzeko 2-3 asteko epea utzita, honakoak dira jasotako ekarpenak:

- Blogaren bitartez ez da ekarpenik jaso
- Udal idazkariaren ekarpen eta proposamenak
- Talde eragilearen proposamenak

Ordenantza bera eranskin moduan dago jasota txosten honetan.

9. PROZESUAK UTZITAKO ONDORIO BATZUK

Hausnarketa eta eraikuntza prozesu honetan gure ustetan elementu zentralak izan direnak aintzat hartu eta aurrera begira kontutan hartu beharreko gako batzuk aipatu nahi ditugu.

Gure ikuspegitik aintzat hartzea merezi duen elementuak dira, eta aholku gisa kontuan hartuak izan daitezzen idazten ditugu, ez gehiago ezta gutxiago ere.

Prozesu honek herritarren partaidetzaren inguruko hausnarketa orokor eta zabala burutzea ahalbidetu du. Hausnarketa honetan iritzi, behar, abiapuntu eta ikuspegi desberdinak mahaigaineratu dira, horrek duen balio guztiarekin.

Demokrazia ordezkaitzailea demokrazia zuzenaren praktikekin osagarritzeko ibilbide posiblea irudikatu du prozesuak. Ibilbide horretan erronka batzuk azaleratu ditu prozesuak termino orokorra.

Modu batean laburbiltzearen, herritar eta ordezkari politikoen eskubide eta betebeharren inguruko arteko elkarrizketa gurutzatua eman da. Finean eztabaida honela planteatu daiteke: zeren inguruan dute herritarrek erabakitze eskubidea? Zein neurritan bultzatu behar ditu udal egiturak eskubide horiek? Eta eskubide horiek ze erantzukizun dakartzate berez? Azken galdera hau beste modura honela jaso liteke: ordezkari politikoak al dira herritarren erabakien erantzule zuzenak?

Aukera –sorta honetan mugitu da eztabaida herritarra. Hau ez da eztabaida estatikoa, etengabe aldatzen dihoana baizik. Eta prozesu honetan ere hala gertatu da, posizio batzuk mugitu direlako, eta eztabaida baliagarria izan delako herritarren partaidetzari protagonismoa eskaintzeko.

Prozesu eta ordenantza honek erronka zehatz batzuk mahaigaineratu ditu. Ordenantza, alde batetik, herritarren eskubideen berme bat da eta izango da; bestetik, erronka eta aldaketa batzuk aurkezten ditu ere. Hauek dira gure ustetan zaindu beharko diren elementu batzuk:

- Arreta zerbitzuaren antolaketa
- Udala eta herritarren arteko komunikazio estrategia (informazioa eta deialdiak helarazteko)
- Herritarren eskaera, iradokizun eta kexak bideratzeko mekanismoak
- Elkarteen erregistroa sortzeko prozedura
- Elkarrekin egin beharreko lanketa (webgunea, agenda bateratua)

10. PROZESUAREN BALORAZIOA

Txosten honi amaiera emateko hausnarketa prozesu honen inguruan talde eragileko kide batzuk egindako balorazioak aurkezten dira.

- Ordenantza hau ongizate komunaren alde urratsak eman eta kolaboratzeko baliagarria dela uste dut.
- Gutxi gora behera espero nuen emaitza izan da. Gure herri tamainari egokitutako ordenantza dela iruditzen zait.
- Hasieran beste "rollo" bat izango zela uste nuen baina prozesua baliagarria izan da; nik esandakoa jasota dago ordenantzan eta.
- Aurrerantzean garrantzitsuena idatzitakoa aurrera eramatea da.
- Haur eta nerabeekin lan egiteko berme gehiago eskaintzen dituela iruditzen zait.
- Denok ikasteko modu bat markatzen dela iruditzen zait, parte hartzen denok ikasi behar dugu eta.



AZTIKER KOOP. ELK. TXIKIA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien eorbidea z/g

20140 Andoain (Gipuzkoa)

943593006

www.aztiker.com – idazkaritza@aztiker.com